

# Lilura



**ANE LABAKA  
MAYOZ  
BERTSOLARIA**

**B**uruan buelta-bueltaka nerabilen aspaldian. Banekien bazela zerbait, sumatzen eta sentitzen nuen, baina ez nintzen hitzetara ekartzeko gai, harik eta Lur Albizuk eta Erantz Saez de Egilazek eskuz esku idatzitako *Gureak ere bada*. *Desira, boterea, epika* irakurri nuen arte. Ezinbestean, arkatzezko pare bat zeinu, azpimarra batzuk eta paperezko belarritxo bat gehitu nizkion liburuari hogeita hamabigarren orrialdean.

Gizonei buruz ari direlarik, honakoa diote bertan bi egileek: "Duten lekua mantentzeko mekanismo handia da euren arteko maitasuna eta, kasik, lilura. Haien arteko elkarrizketak ikusi besterik ez dago. Elkarri nolako miresmenegiz begiratzen dioten, zein intentsitatekin eztabaidatzen duten eta 'joe, zelako makina tipu hau' zenbatetan sentitu eta esaten duten".

Hamarnaka adibide datozkit gogora, eta azken udazken honetakoak dira asko eta asko. "Urlia [mutila] inoizko ondoen dabil" entzuten nien gizonei, gaur bai eta bihar ere bai. "Adu al duzue sandiaren [mutila] ganbarako lana? Ikargarria!". Eta neure baitarako pentsatzen nuen baietz, egia izan zitekeela urlia eta sandiarena, baina niri beste hainbat izen

ere inolako nekerik gabe labaintzen ziztizkidala mihi-puntaraino, ondo baino hobeto arituagatik ere gizonek behin ere ahotan hartzen ez zituztenak.

Albizuren eta Saez de Egilazaren arabera, "gizonek elkar limurtzen pasatzen dute denboraren zati handi bat. Pozik daude elkar ezagutzen dutelako eta euren burua asko maite dute, kolektibo bezala ere bai. Ez dute onartuko, baina elkar desiratzen dute". Gainera, "haien arteko eztabaida sutsuek ere badute sedukzio parte bat kitzikatzen dituen. Interes konpartitu batzuk dituzte, elkarren babesleku dira eta elkar maite dute. Anaiartea da duten leku erosoena".

Erreferenteren baten –edo kanturen, edo libururen, edo dena delakoren baten– inguruan galdetzen zidaten aldiro emakumeak aipatuko nituela erabaki nuen behin, eta ez naiz inondik inora damutzen. Egiari zor, gero eta errazagoa zait, behin honezkero nire etxeko apalategiak eta mahai-gainak liluratzen nauten emakumeen lanez gainezka baitaude. Jakitun naiz, ordea, hautu bat egin izanaz. Hautu politiko bat, funtsean, anaien sormen lanak goratzen eta laudatzen berez-berez ari direla uste izango duten gizonena bestekoa. ●

# Albistegiak



**LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI  
IRAKASLEA**

**A**spaldian nengoen Teleberria ikusi barik, baina harira ez datozen arrazoiengatik parean tokatu zaizkit larunbat eta igande gauekoak. Eta argi geratu zait zergatik laga nion telebistako informatiboak jartzeari.

Duela urte asko oso gustukoa nuen albistegiak ikustea, baina denbora pasatu ahala, aspertu naute zeharo. Gero eta hutsagoak, gero eta berri ganorabakoak. Hotz handia denean, hotzaz dihardute. Eta elurra eginez gero, erdia baino gehiago malutek beteko dute. Ostean, kirolak eta berriro ere eguraldia.

Asteburuetak horietan aroa ezin protagonista izan, arrunta izan ze-

lako. Albisteak hornitzeko guztiek zituzten kaleko jendearen adierazpenak. Merkealdi hasiera zenez, hiriburu bateko oinezkoen berbak: gona bat eta zapatak erosi zituztela, 80 euro gastatu, nahi baino gehiago xahutu zutela... sei bat edo. Biziki interesgarria!

Igandekoan, ordea, Gabonen amaiera: errutinara itzultzeko gogoa, lanera bueltatu nahi ez... Oso argigarria!

Adierazpenok ez dira berriak, ingurukoekin izandako berrikeraldi hutsalak baino. Igogailuko elkarrizketa informatiboaren muina bada, informatzea non geratzen da? ●